


Urremendi LGEak eta Arratzuko Udalak bultzatutako kooperazio proiektua, Euskadi 2015-2020 Landa Garapen Programaren barruan Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura sailak aurreikusitako dirulaguntzekin.

Helburu nagusia lankidetzan landutako negozio plan baten balioztatzea izan da, Busturialdea eskualdeko nekazarientzat etorkizunerako aukera berriak ekar ditzakeena.

Balio katearen eragile guztien lankidetza horizontalak posible egin du etorkizunean eskualdeko eragile desberdinek (nekazariak nukleoan egonda) esplotatu dezaketen negozio eredua garatzea.

Basque Food Laboratory -ren eskutik 8 erreferentzia garatu dira: kiwi "untablea", porru pastela, Arratzuko kiwi izozkia, Idiazabal flan-a kiwi snack-a, Gernika-ko piper "aderezoa", Idiazabal eta porru sopa, eta kalabaza snack-a. Erreferentzia hauek aukera interesgarri eta erreala eskaintzen dute hotel txiki eta landa-etxeak bezalako negozioentzat. Oso positiboki baloratu izan da bertoko lehengaien erabilera eta aukera dago produktu eskaintza zabalago bat garatzeko bezero potentzialen beharrak aurreikusita, bai eskualdean edota eskualdetik kanpo.

Lankidetzan

Elkarlana



**Finantzatzaileak**